



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

18/09/28

Batzar Nagusien osokoak Batzarretako taldeen zazpi ebazpen proposamen onetsi ditu

Gaur goizean Gernikako Batzarretxean egin dan Osokoak, astelehenean egindako Politika Orokorreko saioaren jarraipenak, Batzarretako taldeek aurkeztutako zazpi ebazpen proposamen onetsi ditu, eztabaidarako Gernikara gaur heldu diran 23etatik. Horreetatik bi Foru Gobernua eusten daben taldeek –Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak– batera aurkeztutakoak dira, eta beste lau talde horreek oposizino talde batzuekatz transakzionatutakoak, bi Talde Mistoagaz, bat EH Bildugaz eta beste bat Podemos Bizkaia taldeagaz. Horrez gain, osokoak EH Bilduren eta Talde Mistoaren arteko transakzional bat be abalau dau.

Batzarretako ekimenek, Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak orain astebete Gernikan landu ebazan gai batzuk jasoten ditue. Bertan, Politika Orokorreko bere hirugarren osokoan, bere gobernuak epe laburrean daukazan konpromisoak azaldu ebazan. Saio haretan bereganatu ebazan erronkei, gaur Bizkaiko Batzarrek adostu dituen ebazpenak gehituko jakez.

EAJ-PNV ETA PSE-EE TALDEEN EKIMENAK

Osokoak onetsi dituan ebazpenen artean, Aldundiko gobernu eusten daben talde biek aurkeztu dituen ekimen bi dagoz. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, basoen sektorearen eta ingurumen arloko eraginaren ganeko proposamenak atara ditue aurrera.

Lehenengo ekimenean eskaria egiten jako Aldundiari, Arabako eta Gipuzkoako Foru Aldundiakaz eta Eusko Jaurlaritzagaz eta egurraren sektoreagaz batera behar egin daian “pinuen gaixotasunari aurre egiteko, dagozan aukera guztiak aztertuta, prebentzinozko tratamentuei eta ikerketari eta esperimentazinoari jagokenez, eta baita gure Lurraldean baso politika iraunkorragaz jarraitu ahal izatea posible egingo daben basoko espezieak bilatzeko be”.

Horrez gain, proposamenean eskaria egiten da, “eragile guztien artean, eta bakoxtaren eskumenak kontuan izanda, ildo horretan aurrera egitea posible egingo daben baliabide teknikoak eta ekonomikoak jarteko”. Proposamena aurkeztu daben taldeak izan dira ekimenaren alde bozkatu daben bakarrak; Podemos Bizkaiak, EH Bilduk eta Talde Popularrak kontrako botoa emon dabe, eta Talde Misto abstenidu egin da.

Horrez gain, Batzarrek, “Arratiako bailaratik igarrotean N-240 errepideko trafiko astunaren eragina murrizteko aukerea emongo daben jarduketa posibleak aztertzer eta indarrean jartera” zuzenduta EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek aurkeztu daben beste ekimen bat abalau dabe. Proposamena aho batez onetsi dabe Batzar Nagusiek.

AKORDIOAK BESTE TALDE BATZUEKAZ

Horrez gain, Foru Gobernua eusten daben talde biek (EAJ-PNV eta PSE-EE) akordioak lortu ditue oposizinoko hiru taldegaz (EHB, Podemos eta Mistoia) beste ebazpen proposamen transakzionatu batzuk aurrera atarateko.

EAJ-PNVk, PSE-EEK eta Talde Mistoak adostu daben proposamenaren bidez, “Bizkaiko tokiko merkataritzari emoten jakon laguntzea indartzeko” eskatzen jako Bizkaiko Foru Aldundiari, “sektoreagaz eta Lurraldeko administrazio guztiakaz batera, ‘Bizkaiko merkataritza’ izeneko proiektu bateratua gauzatzeko, balio erantsia emongo dauen kalidadekoa tokiko merkataritza lehiakorrari eusteko eta indartzeko”. Talde guztiak agertu dira proposamenaren alde, abstenidu egin dan Podemos Bizkaia izan ezik.

Hiru talde horreek beste proposamen bat sinatu dabe, Aldundiak “inplikauta dagozan Aldundiko sailetatik, EAeko familiei laguntzeko Erakundeen arteko IV. Planean jasoten diran ekintzak aurrera erooten jarraitzeko”. Proposamen transakzional horrek EAJ-PNV, PSE-EE eta Talde Mistoaren aldeko botoa baino ez dau jaso. Podemos Bizkaia taldeak kontrako botoa emon dau, eta EH Bildu eta Talde Popularra abstenidu egin dira.

Ganera, eta oraingo honetan jeltzaleen, sozialisten eta EH Bildu taldearen aldeko botoakaz, osokoak eskaria egin deutso Foru Gobernuari “lan barik dagozan personek enplegu egonkorak eta kalidadekoak lortzen lagundu daian, horretarako daborduko kontrastauta dagozan esperientzien eta estrategien sustapenean sakonduz, programa berritzaileen sustapenean, besteak beste (enplegu anezkak, ekintzaitzarako taldeka izenekoak...)”.

Proposamen horrek berak, “pertsonek laneratzeko ibilpideak lantzeko apustuagaz jarraitzera” animetan dau, “lehentasun berezia emonez 45 urtetik gorako personei eta emakumei, estereotipo sexistak gaindituz”. Proposamena Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak, EH Bilduk eta Talde Mistoak onetsi dabe, eta Podemos Bizkaia eta Talde Popularra abstenidu egin dira.

Eta, bukatzeko, Aldundia eusten daben talde biek akordioa lortu dabe Podemos Bizkaia taldeagaz, Bizkaiko Foru Aldundiari eskaria egiteko, “Bizkaiko lurraldeko emakumeen eta gizonen informaziorako eta partaidetzarako Plan bat diseinetako eta garatzeko, bizitzako esparru guztietan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzera eta bermatzera Bizkaiko Foru Aldundiak zuzentzen dituan neurrien ganean”. Horretarako, Batzarrek “orain denpora gitxi onetsi dan Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Foru Arauan jasoten diran tresnak indarrean jartea” eskatzen dabe. Batzarrek aho batez onetsi dabe proposamena.

TALDE MISTOAREN ETA EH BILDUREN ARTEKO AKORDIOA

Modu berean, Foru Gobernua eusten daben taldeak EH Bilduren eta Talde Mistoaren artean adostutako proposamen transakzionalaren alde agertu dira. Bertan, “aberastasuna eta enplegua sortzen dauen industria danez, Bizkaiko baso landaketak laguntzea eta horreen mantentze-lanak eta kudeaketea errentagarritasunean eta iraunkortasunean oinarritutako erespideen arabera bultzatzea” eskatzen jako Bizkaiko Foru Aldundiari.

Bozketan, talde guztiak akordio horren alde agertu dira, abstenidu egin dan Podemos Bizkaia izan ezik.

ONETSI EZ DIRAN PROPOSAMENAK

Dana dala, osokoak ez ditu onetsi oposizionoko taldeek aurkeztutako 16 ekimen (Talde Mistoaren 2; PP taldearen 5ak; EH Bilduren 5ak eta Podemos Bizkaiaren beste 4), Horreen artean azpimarragarriak dira Talde Mistoaren eta Talde Popularraren hainbat ekimen, gizartearen gaztetzea bultzatzeko. Talde Popularrak eta Podemos Bizkaiak Bilboko Metroa luzatzeko proposamenak aurkeztu ditue. Horrez gain, Batzarrek EH Bilduk aurkeztutako proposamen guztiak be atzera bota ditue; horreen artean azpimarragarria zan Bizkaira heltzen diran migratzaileen arreta integrala bermatuko dauen harrerako protokoloa egitea eta martxan jartea.

NOTA DE PRENSA

28/09/18

El pleno de Juntas Generales aprueba siete propuestas de resolución de los grupos junteros

El pleno de Juntas Generales de Bizkaia celebrado esta mañana en la Casa de Juntas de Gernika, continuación de la sesión de Política General celebrada este lunes, ha aprobado siete propuestas de resolución presentadas por los grupos junteros, de un total de 23 que han llegado hoy a la villa foral para su debate. Dos corresponden a iniciativas presentadas de manera conjunta por los grupos que sustentan al Gobierno foral -Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos-, y otras cuatro han sido transaccionadas por estos grupos con algunas formaciones de la oposición, concretamente dos con el grupo Mixto, una con el grupo EH Bildu y otra con Podemos Bizkaia. El pleno, además, ha avalado una transaccional entre EH Bildu y Grupo Mixto.

Las iniciativas parlamentarias recogen algunas cuestiones que fueron tratadas por el diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, hace una semana en Gernika en donde desgranó, en su tercer pleno de Política General, los compromisos de su gobierno a corto plazo. A los retos que asumió en aquella sesión, se le unirán ahora las resoluciones acordadas hoy por el Legislativo vizcaíno.

INICIATIVAS DE PNV Y PSE-EE

Entre las resoluciones aprobadas por el pleno se encuentran dos iniciativas presentadas por los grupos que sustentan al gobierno de la Diputación. Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han sacado adelante mandatos para el Ejecutivo territorial relativos a sector forestal y al impacto medioambiental.

En su primera iniciativa, se insta a la Diputación a trabajar de modo conjunto con las Diputaciones Forales de Araba y Gipuzkoa, así como el Gobierno Vasco y el sector de la madera “para combatir la enfermedad de los pinos, analizando todas las posibilidades existentes, tanto en tratamientos preventivos como investigación y experimentación, así como la búsqueda de especies forestales que posibiliten continuar con una política forestal sostenible en nuestro Territorio”.

La propuesta también anima a “que entre todos los agentes y en función de las competencias de cada cual, pongan los recursos técnicos y económicos que posibiliten avanzar en esa línea”. Únicamente los partidos proponentes han votado a favor de la iniciativa; Podemos Bizkaia, EH Bildu y Grupo Popular han votado en contra, y Grupo Mixto se ha abstenido.

Asimismo, el hemiciclo ha avalado otra iniciativa de PNV y PSE-EE encaminada a “analizar e implementar posibles actuaciones que permitan minimizar el impacto del tráfico pesado en la N-240 a su paso por el valle de Arrati”. La propuesta ha contado con el apoyo unánime de la Cámara.

ACUERDOS CON OTROS GRUPOS

Además, los dos grupos que sustentan al Gobierno foral (PNV y PSE-EE) han llegado a acuerdos con tres formaciones de la oposición (EHB, Podemos y Mixto) para sacar adelante otras cuatro propuestas de resolución en este caso transaccionadas.

PNV, PSE-EE y Grupo Mixto han llegado a un acuerdo para aprobar una propuesta que insta a la Diputación Foral de Bizkaia a “intensificar su apoyo al comercio local de Bizkaia con el objetivo de desarrollar, junto con el sector, y con las diferentes administraciones del Territorio, un proyecto compartido ‘comercio de Bizkaia’ para mantener y reforzar un comercio local de calidad y competitivo que aporte valor añadido”. Todos los grupos han avalado la propuesta a excepción de Podemos Bizkaia, quien ha optado por la abstención.

Estos tres grupos firman otra propuesta para que la Diputación, “continúe desarrollando desde los diferentes departamentos forales implicados, las acciones contenidas en el IV Plan Interinstitucional de apoyo a las familias de la CAV”. Ésta transaccional solo ha contado con el voto favorable de PNV, PSE-EE y Grupo Mixto. Podemos Bizkaia ha votado en contra, y EH Bildu y Grupo Popular se han abstenido.

Asimismo, bajo el impulso en este caso de jeltzales, socialistas y el grupo EH Bildu el pleno ha instado al Gobierno foral a “desarrollar programas de activación que favorezcan la inserción laboral de las personas desempleadas en empleos estables y de calidad incidiendo, para ello, en el fomento de experiencias y estrategias contrastadas como el fomento de programas innovadores (lanzaderas de empleo, taldekas de emprendimiento...)”.

Esta misma propuesta anima a “seguir apostando por programar que trabajen itinerarios de inserción laboral personalizados poniendo especial prioridad en personas mayores de 45 años y mujeres, superando estereotipos sexistas”. La propuesta ha sido aprobada por Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos, EH Bildu y Grupo Mixto, mientras que Podemos Bizkaia y Grupo Popular han optado por la abstención.

Y, por último, las dos formaciones que apoyan a la Diputación han llegado a un último acuerdo con Podemos Bizkaia para instar a la Diputación Foral de Bizkaia a “diseñar y desarrollar un Plan de información y participación de las mujeres y hombres del territorio de Bizkaia, en torno a las medidas que las Diputación Foral de Bizkaia dirige para promover y garantizar la igualdad de mujeres y hombres en todos los ámbitos de la vida”. Para ello, la Cámara solicita “implementar los instrumentos recogidos en la recientemente aprobada Normal Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres”. La Cámara ha aprobado la propuesta por unanimidad

ACUERDO ENTRE GRUPO MIXTO Y EH BILDU

De igual manera, la formación que sustenta al Gobierno Foral ha apoyado una transaccional acordada entre EH Bildu y Grupo Mixto. En ella, se insta a la Diputación Foral de Bizkaia a “apoyar, como industria creadora de riqueza y empleo, a las plantaciones forestales de Bizkaia, y a impulsar su mantenimiento y su gestión con criterios de rentabilidad y sostenibilidad”. En la votación todos los grupos han apoyado este acuerdo, menos Podemos Bizkaia que ha optado por la abstención.

PROPUESTAS RECHAZADAS

En cambio, el pleno ha desestimado 16 iniciativas presentadas por los grupos de la oposición (2 del Grupo Mixto; las 5 del PP; las 5 de EH Bildu y otras 4 de Podemos Bizkaia). Entre ellas destacan diferentes iniciativas de Grupo Mixto y Grupo Popular para impulsar el rejuvenecimiento de la sociedad. Tanto Grupo Popular como Podemos Bizkaia sendas propuestas para la expansión del Metro Bilbao. Asimismo la Cámara ha rechazado todas las propuestas impulsadas EH Bildu; entre ellas destaca la elaboración y puesta en marcha de un protocolo de acogida que garantice la atención integral de las personas migrantes que llegan a Bizkaia.